

MANTEROLA'TAR

... GABIREL ...



GOI-IZPIAK

Parteakal Bibliak

GOI-IZPIAK

GOI-IZPIAK

Euskal Biblioteka Labayru



1012283

LITERATURA / N. 6859

Nihil obstat.
Dr. Petrus de Menchaca.

L. † S. IMPRIMATUR
Victoriæ, 25 februarii 1921
Vicarius generalis
Dr. Joseph Leontius O. de Zarate

YILASDA

1. Yil	1
2. Yilning boshida	2
3. Yilning o'rtasida	3
4. Yilning oxirida	4
5. Yilning natijasi	5
6. Yilning muvaffaqiyati	6
7. Yilning muvaffaqiyatsizligi	7
8. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	8
9. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	9
10. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	10

YAUNGOIKO - ZALE BAZKUNARI

1. Yilning boshida	1
2. Yilning o'rtasida	2
3. Yilning oxirida	3
4. Yilning natijasi	4
5. Yilning muvaffaqiyati	5
6. Yilning muvaffaqiyatsizligi	6
7. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	7
8. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	8
9. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	9
10. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	10
11. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	11
12. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	12
13. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	13
14. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	14
15. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	15
16. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	16
17. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	17
18. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	18
19. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	19
20. Yilning muvaffaqiyatli natijasi	20

YOUNG'S LITERATURE

Zornotza'n.—Jaungoiko-Zale'ren Iraikolan.

BIĪABIDEA

Bideztia.	11
Seyaska, Gurutza, IĪobia.	13
Egia.	15
Egi-Bidea	17
Ziñesgea	19
Dixit insipiens.	21
Biotza	23
¿Norako?	26
¡Zoruna!	29
Vanitas.	32
Pulvis es	35
Udazken Oldozkuna.	37
Negu-oldozkuna.	39
Udabafia	41
Yosu'ren Yayotza	43
Bethleem'go estalpean.	46
Yosu'ren Izen deunari.	49
¡Yosu!	51
Getsemani'ko baratzan	54
Bariku Guren.	56
Yosu Gurutzan	59
¡Ama Nekatsua!	61
Ikusi ta ikasi	63
OĪĪa.	65
Gogo-Argidiria	68
Nire zoruna	71

Arantzatsu'ko lilia	74
Ama Soñtez Garbiari.	77
Aizkidetasuna.	80
¡Aintza Yauna'ri!	83
¿ ?	85
Andonitxo ta Mitxeletea	88
Oyaneko Iturria	91
Neure gelako txoritxoari.	93
Umetxoai begira,	96
Parixetaña ta zergalaria	98
Asis'taf Pantzeska deunaren eriotzea	101
Deunoro eguna	104
Gokaxoen eguna.	106
Soñtez Garbia	107
Urte Zafaren agurra.	109
¡Agur....!	111
Itz atzalgañi batzuk	113



IRAKURLEARI.

Giza - biotzak yoranez beragandu gura diñuan Egia ta Zorunak, ludi onetako gauzetan suslerik eztauke; eguzkiaren izpi beroan antzera goitiko igaliak dira; norberagandu gura dituanak ba, nai ta nai ez adimen biotzak goirantz yaso beaf. Suxe dala -ta, gai onetzaz urte bi oneitan egin dituan itz-neurtu geyenak, aizkidetasunak bultzatuta egileak idaztitxo onetan esitu dituanean, GOI-IZPIAK izentzat ezaftea otu yako.

Eleftri arauz begiratu ezkeru, txorta onetan kimu asko moztu beafko litzakezala, bai'dakus; gai onetzaz ba, bere lenengo ufatzak dira; baita eleftrizaletasunak baño egi -zaletasunak geyago eragin dautsolako. Baña Jaungoiko-Zale'ko diranak beintzat abegi txafik eztautsoela egingo bai'daki ta, euren eskuartera bere leraz idaztitxo au zuzentzen dan ezkeru, egilea opaltzen asafitzen da.

Euskotar-Euskaltzale yakintsu batek euskal-idazti yasa beafa dogula esan dausku. Ara of ba ur tantatxo bat.

Ufretxindofak abestutea obe litzake, baño oneik banakak diran artean Eliza txorien abesti apalak be entzun beafko.

Aguñ.

Egileak,

Eibar - Isasi 1920'ko Miren Softzez Garbiaren egunean.





BIDEZTIA



Bide zidoꝛ ta
latzetik zeaꝛ
auldu-nekauta
bai'doa,
nekauta doa
abeꝛirantza
bidezti gaxo
-gaxoa.

Oyan itzaltsu *sentia*
den zito lekaro-zeaꝛ
goirantza beti
ta beti,
abeꝛirantza
igesi doa
atzeꝛi yakon
luditik.

Biden ertzeko
arantza latzak
ez yaraitzeko
dirautse,
eta saritan
erpe zofotzaz
soñetik eltzen
dautsoe.

Berak arantza
erpe artean
yantzi atalak
itxiaz,
aurera darai
yaramon barik,
efi maitean
gogoaz.

¿Norantza zoaz
bidezti ori,
norantza oso
nekauta?
—Donokirantza
yoran-yoranez, *con viva ansia*
bertan zoruna
dago-ta.



SEYASKA, GURUTZA, ILOBIA

Auftxoak yayota seyaskatxoan
negar-zotin dagi
aman ondoan.

Laztan bat emonaz amak diñotso:

¿Zer izango az i,
ene kutuntxo?

¿Izango ete az osasuntsua?

¿Ala erkiña ta *flajo*
gaxo-gaxoa?

¿Oso aberats eta yakintsua?

¿Ala ezyakiñ ta
txiro-txiroa?

¿Noiz arte bizirik iraungo dok ik?
erantzun egidak
zerbait ba'dakik.

—Esango neuskizu ezer ba'neki.

«Ilgo naz» besterik
iñok aldaki?

Atzo yayotako aur gizondua
bide laka-zeai *a través de un camino
desierto*
goirantza doa;

Gurutz aztun-latza daula lepoan,
indar ak nekauta
ezin eroan;

Alan be, auferantz aberirantza
yafaitzen dau beti,
beti goirantza.

¿Noizko elduko dan bere elburura?

Ez izan alpefik *no te confieras en vano*
au yakin gura.


Gurutzdun gizon au indar geturik
bide-ertzean datza *yace sin fuerzas*
gustiz auldurik.

Gogoak iges dau bere barutik
yoanda bizia *la vida se ha ido*
gorputz ortatik.

a de no
Ilobian datza giza-gorpua
afen yanari ta
auts biurtua.

Ara or gizonen bizi gustia:

SEYASKA, GURUTZA,
eta ILOBIA.



••••• **EGIA** •••••

un sejr
Euzkiaren argia disdiratzen dan legez
antzikuñan antzera edeñ ilargian
Yauna'ren arpegiko argi zoragañiak
dis-dis bizia dagi geu-adimenean.

Argi onek damotso zoruna gizonari,
biotza eraldurik zintzo zuzenzale,
adore neurgabea damotso argi onek
gudan ez azpertzeko zuzenaren alde.

*moldian
formau*

Girñakaz alkañturik ba'datoñ guzuñ
[baltza
guda gogoñ egiten erail arteraño,
etsai amorañtuok menperatzen dituz ta
azke ta biziago dager iñoz baño.

Ludian ezta sortu egia menpetzea
unetxo baten bere lortu leikeanik,
eguzkiaren izpi, argi bero, zolia,
lotzeko eztagon lez gai dan estuntzarik.

Yaun bat bakaña dazau; bere Aita
[Goikoa,
Beragandik soñtu dan izpia dalarik,
azke, argi ta garbi dan lez agertuteko
edonon ta edonoz eztauka bilduñik.

Adimenean baña, girña eta guzuñaz
odei eztalki baltza aurkitu ezkeru,
abia egiten dau etsairik gogoñenok
izpi bero biziaz urinduta gero.

Gogo zintzoarentzat, bere onurak dira,
begi gexodunentzat ezta on argia,
ara of goiko emaitz on eta ederen au
zergaitik dan askontzat goñotogaña.

Biotz andidun izan ta gertu adimena,
zeuregandu dagizun egiaz zoruna,
eta, estuntzapean biziten ba'zara be,
azke biziko zara. Zeugaz dago Yauna.





EGI-BIDEA

nada qui oca
Egi-egariz gustiz aulduta bein bidezti bat zegoan,
bidekatuta erantzun bila
oldozten bere bañuan:

¿Nondik soñtu naz? ¿norantza noa?
¿Zertako nago ludian?

Gaudi eder au yakin neinke nik
zeñek egiña ete dan?

por si
Berez soñtua eztirudi ta,
norbaitek egin dau ziñez!

Ze asmoz baña egin ete dau

yakin gura dot yoranez. *con ansia*

Bizitz igeskoñ onen ondoren
bai ete dago besterik?

Eriotz baltzan beste aldean
ete da sari-zigoñik?

Gorputz ustelkoñ onez gañera
ba'dot nik ezer bañuan?

«On egin beti, txafik iñoz bez»
¿nor diñostana gogoan?
¿Zorun egafiz dodan biotz au
ete da iñoz be aseko?
Ludi onetzaz iguintzen da-ta,
¿nok egiña da? ¿norako....?»

.....
.....
Onetan ara non agertzen dan
arpegi alai argiaz,
Yauna'n Gotzon bat au diñotsona
idaztiño bat emonaz:

—Egi-zoruna lořtu nai bo'zu
ara oř bide bakařa.»

Pozez beterik zabaltzen dau ta
zan... IRAKASTI KISTAŘA.





ZIÑESGEA



Oyan itsaltsuan bidekatuta
nekearen-nekez gustiz aulduta
bideztia dabil,
ikaraz ta zurbil
artegabetua;
non dan be eztakian gizon gaxoa.

Gentzea galdurik dabil oyanean
batera, bestera, bilatu nayean,
bañengo gentzea *bakea*
ta baretasuna,
baña, geroago
ta, bere biotza dauko samiñago.


*on llamado
inganosal
ralagando
es halagiro*
Dei atzipekoyez etsai galgariak *porcinos*
leusinduten deutsez entzumen zoliak,
eskintzen argia
ta zorun bidea,
baña, yañaituta
laster da geratzen ustegabetuta.

Eskar-eskumara zuzendu begiak,
nondik ikusiko argien izpiak,
eta iluntasuna
ustegetzen dauna,
eztakus besterik,
eztager inondik itxaro argirik.

Eriotza deika dagola, onetan
ozantz itzaltsua entzun dau goyetan,
yaso dauz begiak,
ta argien izpiak
dis ortze danean
einda, zabaltzen dau poza oyanean.

Bideztiak baña lauso dauz begiak
¿Zelan ikusi ba, pozaŕen izpiak,
girñak itsuturik,
begiak mindurik,
iges dau argitik;
¿Urten nai ete dau oyan ilunetik?

Dis-dagi beti ziñeste argiak
nai nondik bialtzen izpi biziak,
ta gizon gaxoak
ziñestebakoak,
iges dau argitik;
¿Urten nai ete dau guzuŕ-ilunpetik?



DIXIT INSIPIENS....

«Senzungeak bere biotzan diño:
Yaungoikorik ez da.» (Psl. XIII-1).

mira

Ludi eder^{tasunai} so-egin eta nor da
ezer ezpalekus lez gizon ayer^{gea}?
Ortzean ikusirik euzki zoraga^{ria}
ta ainbeste izar eder^{er} geltzen eztana?

*no se
admira
no se
el misterio*

Oyan baso, mendia tantaik orleiz yan-
[tzirik
aran eta moñoak bedar eta loraz,
ikusten dituana; zelan ez oroituko
ainbat gauza gelgarin Egile Yauna'gaz?

prodigiosa

Ainbat egazti mueta, ainbat arain,
[abere,
zomoño eta pizti ugari, ugari
gnor da ezdakuszana, lur itxaso axetan,
ereserki edera zuzentzen Yauna'ri?

amr eu hantar espejo
Itxaso zabal-azal antzikuí edefan lez
Yauna'ren arpegia, ¿nok ikusten eztau?
Ekatzaren bañenan Yainko-beso altsua
tximistaren argiaz edonok ez dazau?

ea dau esagutzen esticho
Baña zer; geure baú sentzunak ertsita
[be,
oguztu
adimen ta biotzan ezdaurkigu Yauna?
¿nor da ba lotsagabe Yaungoikorik eztala
esaten biotz baú asaítuten dana?

Oroen lotsagafi izate bat bakaák
ukatzen dau ero lez Yauna'n izatea;
«Yaungoiko bat bai dala» abes-aintzatsu
[-aurka
auxe bakaí-bakaírik: Gizon sentzungea.





BIOTZA

«Zeure biotza ardura-arduraz zaindu egizu bizitzaren sustaŕa da-ta.»
(Prov. IV-29).

todas Izatez txiki eta, leize ondogabe *sin fondo*
gauzak beragantzeko itxaso lez neurgea, *sin li*
orok dauka baŕuan egaŕiz biotza;
ezautzen daunik, ¿nor da gizon oro artean?
¿Nor ain yakintsu eta zoriontsu ludian?
Iñor ba'da, berea da zorun-bizitza.

saketou Gentzatsu dagonean ozkarbia dirudi,
baña naigabepean dagonean urduri,
itxaso asaretu, naspildua ba'da, *nastautata*
gure biotza zer dan uleŕtuko dabenik,
ekatx ondoren danak azaltzeko gai danik
iñor aurkitzen ba'da; non dago ta nor da?

¡Gauza gurena dala! ¡Yauna'ren antzi-
[kuŕa!

Yainko-maitasunaren bakaulki betikoŕa?

trono

Itanduko dautsot nik au diñostanari:
Biotzan maitasun au guren-gurena dala,
¿zelan uleřtu geinke aldakoř utsa ba'da
maitasun au eskintzen ludiko gauzari?

Egun bateko lora, beingoan aultzen
[dana,
su-gař indařgabe bat une baten dirauna,
biotzan izatea dala diñostazu?
¿Zelan bere bařuko maitasun-egafia
asetzeko ezta gai ludi gusti-gustia?
¿Zelan eta zegaitik? Azaldu eistazu.

¿Izatez ona dala? Zelan au esangogu,
gořoto, gaiztakeri, obena ba'dakusgu,
bere bařuan oro sořtuak dirala?
¿Zelan; aldioroko gaiztakeri gustiak,
zakařkeri lizunak, guda gogoř sutsuak,
ituři onetatik urtenak ba'dira?

¿Txařtzat ba, etsikogu? Ekandun iga-
Auto virtuteso
la estimareni [liak,
neke samintasunak gozatzeko guriak, *anar*
damoskuzan zugatza txařa izango ete da?
Maitasun-eřukia, apaltasuna, gentza,
garbitasun gurenan tokia dan biotza,
txařa dala esaten; ¿nor asařtuko da?

azalpen

Oron azalben auxe: Yauna'k egiña dala
biotz-Egilea ba, Ontasun berbera da;
¿Zelan beren eskutik leike txar ak urten?
Igali ustelik ba, emoten dabenean,
oben-eden ankeña, sartzen dala biotzan
ekizu bañen dana dautsola ustelduten.

Bizitzaren sustaña dozu biotz bañuan
ta naikun okeñ batek azi txar lez soloan
erainda, usteltzen daki saritan biotza;
Ardura-arduraz ba, zeu-biotza zaintzeko
ase leiken bakaña Jainkoa maitatzeko
ta saritzat eukozu betiko bizitza.





¿NORAKO?

«Neure biotza artega dago
Zeugan atsedendu arte.» (Austin deuna.)

Biotz andia eta asegatxa
zorion egañi dana,
gauza gustiak txastatuaren
iñoz be asetzeztana,
geure bañuan daukogu danok
beti artega-samiña;
¿Norako da, Yaun laztana,
geure biotz au egiña?

difal de sauan

aurque gaste

Ludi zabal au ez ete da ba,
beronen bizi tokia?
¿Zelan ba berton eztau aurkitzen
poztasun eta pakea?
Idoro ezik ludi onetan
beretzako atsegiña;
¿Norako da Yaun laztana
geure biotz au egiña?

Mitxetelea lorarik-lora
ibili oi dan antzera,
geure biotz au artega dabil
gauza batetik bestera,
arek lez baña ez dau aurkitzen
iñon be poz-atsegiña;
¿Norako da Yaun laztana
geure biotz au egiña?

Ituñi argi, garden, garbia,
mendi gañean urtenda,
itxasoraño gelditu barik
zuzen-zuzen yoaten da,
iñon aurkitzen eztabelako
beretzako toki diña;
¿ituñitxo ez ete da ba
itxasorako egiña?

Ta bide ertzean aurkituañen
lora polit ta txoriak,
euraen lagun eragiteko
baltzen poz-abestiak;
¿Agur lagunak! esango dautse
auxe da nitzat eziña;
¿Ez naz ba, neure Yaun onak
itxasorako egiña?

Ase ezin dan geu-biotza be,
Jauna'n eskutik urtenda,
gauza batetik beste batera
zorion bila yuten da;
zoruna baña, zelan aurkitu
dalarik gauza eziña;
Geure biotz au ez da ba
donokirako egiña?

con nucia
Ituñitxoa yoranez dan lez
itxasora eldu arte,

geure biotza gentzake dabil *sin pae*
Yauna' gana urbildu arte,
ludi gauzakaz asetutea
dalako gauza eziña;
¿Ezta ba Yauna'rentzako
geure biotz au egiña?

Zure bidez ba, bo'zuz aurkitzen
atsegin ta ondasunak,
euraen lagun zeu egiteko
eskintzen poz ta zorunak;
¡Aguñ lagunak! esan eikezu
auxe da nitzat eziña;
¿Ez naz ba, neure Yaun onak
bere-beretzat egiña?



¡ Z O R U N A !

Gizon afo altsuoi, oro menperatuta
zek zarabiltz urduri yoranen-yoranaz?
¿Zer loftu gura dozu, andi-naiz zoratuta
zuzentasun-legea ostikopetuaz?

cierto
Itufia ikusita oreiñ egañitsuak,
daroyan yoranagaz txindi bili zabilz?
and Zeure begi zikoitzok, ufearen dis-disak
batera ta bestera zergaitik darabilz?

Gizon yakintsu ori, zer dala-ta gautegun,
zabilz lan eta nekez egian ondoren?
beraonen izpitxo bat agertzen yatzunean
zer dala-ta biotza yatzu pozez yañtzen?

irritable Landeñ, txiro gaxuoi, ogia irabazteko
nekatzen zaranean; ¿zer ames dagizu?
Uñun an... lañopean eskutatzen yatzuna,
amesez dazauzunoi, zer dan esaidazu?

esagutzen duzunoi

Ao batez oyu bat, biotzetik sořtua,
edonondik eltzen yat auxe diñostana:
«Zorundun izateko, egařiz dot biotza,
betoř bai betoř lasteř ;zoruna! ;zoruna!»

Eta gizon gustiak mitxeleta ondoren
doyan mutikoa lez dakustaz artega,
eskuartetik iges eiten dautsen zorunantz,
besoak edaturik iñoz aspeřtzeka?

zabaldurik

Baña donoki goyan sořtu dan abots leuna
neure entzumenera datořela dantzut:
«Ludi gauzan artean zorun bila ba'zabilz
alpeřik nekatuko zarala diñotzut.

«Altasun, yakituri, aberaski ta aintza,
uskeri utsa dala ez ete dakizu?
Eta biotz bařengo zorun egaři ori,
ezerezten dan gauzaz asetu nai dozu?

«Erbesteko landara da zoruna ludian,
eztau ba oř artuko iñola be sustařik
donokiko baratza da bere aberia,
bertan zoruntegia, ez iñon besterik.

«Bizi zaran artean eskuratzen bo'zu ba
zorun aletxoren bat biotza pozturik,
ekizu donokitik yausitako ale au,
eztala iñoz egongo ařak yo gaberik.

Gentza lořtu nai bozu yaso gora begiok;
zorundun izateko ara oř bidea:
«Ez biotzik esaři ludiko gauzari ta
arduraz zaindu beti Yaungoiko-Legea.»





VANITAS.....

Eriotza baltza azurutz irudiz
makatz zofotzaz eskuan,
yayotzekero beti noz yoko
daukagu geure alboan.

Bakaldun afo naiz otsein izan,
yakinge naiz yakintsua,
gaste naiz zaña efuki barik
beste ludira daroa.

Ifibañetxo bildurgafiaz
egunoro diñoskula:

*Ludi ontako gure bizitza
eriotz bizia dala*

Geriza legez ba, igaroten da,
luruna lez ezereztu;
tximistearen bizkortasunaz
azken itunera eldu.

Galde-galdetu ordu aretan;
¿Non dago non bakalduna?

¿nora yoan da bere menpean
danak euki nai zituna?
Yakituriaz zer gertatu da?
¿non dira non aberatzak?
Non dira euren arokeria,
ederotasun ta yolasak?

Ikusten dozu luñun-ontzia
itxaso zear arinka,
azkar doyala elbururantz
loartzik iñon izteka? *dejando por doquiera*
Ikusten dozu txori bizkoia
axe-zear igaroten,
bere bidean azterentxo bat
iñon eztala aurkitzen?

Ikusten dozu azkon zofotza
yo-mugarano azkarik,
zuzen bai zuzen doyala ta iñon
eztaula izten loartzik?
Bizitza bardin igaro da ba,
geriza legez yolasak,
ez ba yaraitu alper-alperik
andikiaren uratzak.

Udazkenean ekaitz axeak
zugatz-ori legorak lez,

sin erazari

eriotz gogor biotzge danak
biurtu dituz «ezerez.»

Gogalduizu ba egi sakon au,
euki gogoan yosia:

Ludi ontako gure bizitza
dala eriotz bizia.





PULVIS ES.....

*Auts zaralako austuko zara ;
egi au ondo gogaldu
Auts egunean Ama Eleiza'k
kista' orori diñosku.
Egi au za'ra oso dala be,
beti da ba'ri-ba'ria
itxaropena kista' onentzat
txa'rentzat bildu'rga'ia.*

*A'rokerizko axez biotza
gustiz dozuna puztuta,
danak menpean euki nai dozuz
egi onegaz aztuta?
Buruan autsa eza'ri eta
Ama Eleiza'k di'notzu:
*Auts zaralako austuko zara;
gizon a'roa, gogaldu.**

Aberastasun ugaltasunak
biotza dautzu dolořtu?
geide gaxoai sorositeko
erukibako biurtu?
Entzun Ama'ren egi sakona
eta biotza samurtu:
*Auts zaralako austuko zara;
gizon dolořa gogaldu.*

Lizunkerizko ekandu txafez
biotza dozu lotuta?
beti luřera begira zagoz
Yaungoikoagaz aztuta?
Entzun Ama'ren egi garatza
eta biotza goratu:
*Auts zaralako austuko zara;
gizon lizuna gogaldu.*

Doipuru ala Bakaldun izan
yakinge nai yakintsua,
txiro gaxorik bizi dan ala
aberats osasuntsua;
entzun gustiok egi garbi au,
Eleiza'k oroi diņosku:
*Auts zaralako austuko zara;
egi au, gizon, gogaldu.*



UDAZKEN - OLDOZKUNA



Udazkeneko egun itunan
ortzea goibel dakustanean,
eta ausarditsu axe-erauntzia
saftuten dala zugatz artean;
ofi gustiak irabioka
euren biaz aztuta lez,
alkaŕen leyan ikusten dodaz
bilduŕ-ikaraz iges-iges.

Goibel yaŕtzen yat neure biotza;
oldozkun baltzez daukat itun;
poza damostan gauzaz aztuta
nai ez da yaŕtzen naz oldoztun.
¿Zer dan bizona? ¿Gizona zer dan?
Irudi ontan argi dakust:
axe-erauntzian aldi zolia,
ofiak gizona darakust.

Giza bizitza da axe zearka
egazka doyan txoritxo;
ta elbururantz arin itxasoz
doyan ontzi bat indartsua.
Odei ertzean sortuta laster
ezereztuten dan luruna;
aitz-erpin-zear igeska doyan
laño antzedun da gizona.

insentian Argidirian laztan artean
yayo dan lora samur, eder,
eta aratsean bizitza barik
gelditzen dana iger-iger.
Udazkeneko egun ituna
axe-erauntzi eta ori igara,
ludi ontako bizitz laburan
baka-bakaik oixe gara.

Ori samura, laño-luruna,
auts ezereza da gizona;
¿Zelan ba bizitz ain laburagaz
alkartu leike poz-zoruna?
Baka-bakaik bere gogoa
asetu leiken goi-bizitza
beraganduta zorunduko dau
auts, besterik ez dan biotza.



NEGU OLDOZKUNA


Mendi galurak zuri,
soil-soil aran-muñoak
zugatzak bilotsik ta
ixilik txoriak,
axe-erauntzi baruan
ekaitzaren maraskak
negu bildurgarian
dantzuz bideztiak.

Berun margoz ortzea
dager, ta eguzkia
bildur dala dirudi
arpegia agertzen;
odei zearka nozbait
izpiak bialduta
ekaitzaren bildurez
dau laster igesten.

Ta uste dau bideztiak,
eriotz baltz ituna,
ekaitz-bidez ludiaz
yabetuko dala;
gogaldu bearean
udabañi pozkila
ekaitz-bidez gertatzen
dabilela Yauna.

Bardin gogo-bizitzan
goi-eskañ edur zuriz
apain egonañen be,
eltzen da negua;
adimena goibel ta
biotza leortuta
bere bañu entzunik
girñaren orua.

Ta sañitan gogoak
uste dau etsaipean
ekaitz galgañi onek
ondatuko dala;
gogaldu bearean
betiko udabañia
ekaitz bidez gertatzen
dabilela Yauna.



U D A B A R I A

Axeak odehyai bultz-eginda legez egun otz itunak iges dakustaz, euzkiaren izpi bero argitsuai begiratu ezinda igesi doaz.

Ozkarbi urdiñan odeirik eztager, izaki gustiak pozez eztitzen dagoz, ta poz ori agertu gurarik, apainduraz danak dira yantziten.

Mendiak begira orlegi samuréz yantzita, zugatzak osto mardulez, baratzak loratxo eder usaintsuz ta, aran ta muruak pitxi politez.

Oyan itzaltsuan soítzen diran urak txor-txor alai-alai doaz ibaira, ta txori politen maitasun-abesak axeak dakaústaz entzumenera.

Izaki gustion ereseñki eder
onetan utsun bat tamalez dakust;
oron bakaldun dan gizonan abotsa,
epel eta motel bakañik dantzut.

Neguan ondoren izadi gustia
pozez esnatu da Yauna goraltzen;
ta gizon alpeña logale ondiño?
eskañtxañekuoi; ¿ezta lotsatzen?

«Alpeñoi, esnatu,» nozipein oztotsak
durunda gogoñaz oañtzen dautso;
«esna zaitez lasteñ Yauna goraltzeko»
izadi gustiak batez diñotso.

«Zeure adimenoñi egiaz argitu;
biotzoi berotu Yaun-maitasunaz,
ekandun edeñez apaindu gogoa,
aintzatu pozañen Yaun ona gugaz.»

«Ekandun loraen usain gozatsua,
kedatz luñuna lez bialdu goirantz,
zeure biotzeko eskañon-oyua,
gautegun zuzendu Yainkoaganantz.»

«Adimen argidun zeu bakañik zara
ludiko biztanle oron artean;
Yauna goraltzeko lo-zoñoz egoten
ez zara lotsa be bakañ ludian?»



YOSU'REN YAYOTZA



Aur txikitxo ta polita
yayo yaku Bethlem'en
goazen pozez ikustera
goazen danok len-bai-len.

Zer da bertan dakusguna?
Aurtxo samur polita,
otzez dar-dar aska baten
eztauko zer yantzi ta.

Abeletxe bastez baten
Miren ta Yoseba'gaz,
abere bi berotzeko
dauz arnasa lurunaz.

Ene ederoi; etzara Zu
donoki-luren yabe?
¿Zelan zagoz kutunori
inon laguntzagabe?

¿Zeuk ez dozu piztu goyan
eder-eder euzkia?
¿Zer dagi bere Yauna'ri
bialtzeke argia?

Egaztiak Zeuk eztozuz
apain yantzi ederez?
¿Eztozuz aran, muñoak,
yantzi lora, bedaíez?

¿Txoritxuok lo zagoze?
¿Lo zagoze gaxuok?
Orain abestezpozue
itxi betiko abuok.

—Txoritxuok ixil gagoz;
ez dogu abestuten;
¿Ez dantzuzuz ba gotzonak
Yaun-Auítxoa goraltzen:

«Aintza ta aintza Donokian
Yaungoiko Altsuari
gentza zoruna ludian
gogo zintzodunari?»


Eguzkiak iges dagi
Yosu yayo dalako;
Argia dagon tokian
eguzkia ¿zertako?

Yantzi barik da'-'da' dago
Yosu otz ikaragaz;
nai daulako berotzea
geure maitetasunaz.

Zatoz, Yosu biotzeko,
zatoz maite gugana,
geu-biotzok eskintzera
yun gaitezana Zugana.

Yaungoikoa Au' eginda
yayo yaku Bethlem'en
maitasuna eskintzera
goazen danok len-bai-len.





BETHLEEM'GO ESTALPEAN

«Askatxo baten
lasto gañean,
zakustan auñoi
dañ-dañka,
abelapalak
euren arnasaz
berotzen zaunoi
ñnor zara?»


«Estalpetxo bat
ez da zeurerik?
Ezta seyaska
zañ bat be?
«Maite; nor zaran
esakedazu,
ez dazaut ba ñnor
ain gabe.

«Txirotasunan
seme ete zara?
Ezertxo barik
zagoz ba.
«*Apaltasuna*
da zeure izena?
esan, yakin nai
nago-ta.»

Bidezti batek
auxe galdetu
eutson Bethleem'go
txabolan,
ta, Yosu maitek
askan zegola
erantzun eutson
onelan:


«Ni naz ludiko
Yabe Bakaña,
Yaungoikoaren
Semea,
Izaki oron
Iratzañe ta
ludi gustiko
Argia.

«Askatxo baten
ikusiafen
etzaitez geldu
gizona,
zeugaitik Gizon
egin naz ba, ta
Maitasuna dot
izena.»



«Yaun-maitasuna...!
Yaun-maitasuna...!
Nok neurtu zeure
indaña...?
—Esaten gurту
eban biotzez
Yaungoiko-Seme
Bakaña.





YOSU - IZEN DEUNARI

Izenik eder ta gozoena
eztitsu eta biguna,
Yainko berberak ezaía da
YOSU'ren izen deun-deuna.

YOSU entzunaz donoki-goyan
poz ta zoruna sórtzen da,
ta gaiztokia bildur-bildurez
ikaratuta yártzen da.

YOSU argalen osakia da,
obendien itxaroa,
samin-naigabez dagoanentzat
YOSU da ezti gozoa.

Abestutean ezti utsa da
entzuteko leun-leunena,
YOSU biotz eta adimenentzat
da yaki samur onena.

Gure gogoa leor ba'dago,
YOSU da iturri bizia,
adimeneko gau-aldietan
YOSU guretzat euzkia.


Itxasoa lez ekaitz gogorak
naspildu ba'dai biotza,
YOSU'n izena baretuteko
da gutzat indar laguntza.

YOSU eztala oro dago ilun,
biotz bařena leora,
ezta maitasun ta zorionik,
gustia nitzat gogora.

Izen gozo au aurkitu ezik
etxat begiko idazia,
YOSU saritan aitatu ezik
etxat gogoko itzaldia.

Izen altsuau maite biotzez,
nai dot bizitza gustian,
¡YOSU! esanda Beraganatu
nadin eriotz aldian.





¡YOSU!

IXEN bat da
edef samur
ezti gozo
biguna;
saminpean
dagonentzat
atsegin ta
zoruna

IXEN bat da,
ilunpean
dabilenen
argia,
bera bezin
argi ezta,
ortze-goyan
euzkia.

IXEN bat da
obenpean,
dagoanen
itxaro,
aitatuaz
beste barik
lagun dagi
oparo.

IXEN bat da
donokia
poz-asetzen
dabena,
ta gaiztoki
lexa bañu
dardaratzen
txeñena.

IXEN bat da
goi eta be,
orok dauna
guñtutzen,
etsayak be,
nai ta nai ez
beti dauna
aguñtzen.

IXEN au da
zorionez,
maite - maite
dozuna;
goiko poz ta
beko bildur:
YOSU, IXEN
DEUN-DEUNA.





GETSEMANI'KO BARATZAN

—•••○○•••—

Zugatz adar'ak - ze'ar labanka yausten
[diran
ilargiaren izpi argi, gozatsuaz,
ikusi kista' maite, Yosu zelan dagoan,
eta, nega' egizu biotz saminduaz.

Itun, zurbil, ikaraz, da' - da' bildu'ez
[dago
la'ritasunaz iltze' baratz-deun erdian,
ekaitz bildu'gafi bat, ¡Nekaldiko ekaitza!
yaiki dalako bere Biotz maitatian.

Gure oben gustiak bere gain artzen doa,
Aita'ri eskintzeko gustien ordaña,
Berak gugaitik yasan Nekaldi gogo'ena,
ta, guri parkatzeko eska'rtxa'iraña.


Ziñez ikaragaři lepaltzen daun zamea!
¡Giza-oben gustiak! ¡Ori dan aztuna!
Nok ba, neurtu alko dau, Yainkoaren Se-
[meak
obendio gaxuoi dauskun maitasuna?

Une baten ainbeste oben ikaragaři
dakus ta ordaintzeko yasan beař dauna,
ta, gogaltzez bakařik ařtzen daun oñazeaz,
luřera eratsirik iltzeř dago Yauna.

Begira, auspez dago ta samin uin artean
bere biotza daula, otoi auxe diño:
«Ene.Aita; aldendu, al ba'da, edontzi au,
ez baña nire nairik Zure naya baño.»

Eta oben zigořak beragantzen ditula,
biotzan sořtzen yakon samiñen indařez
soña estaltzen yako, ¡geldu zadiz kistařa!
luřeraño eltzen dan izerdi odolez!

¡Oron Yauna Bakařik! ¡Gotzonen poza
[zurbil!
¡Aloroduna dař-dař...! Zelan izan leike?
¡Ziñeskai ondogea! ¡Argiz baña betea!
Oben-aztuntasuna oř ikusi geinke!



BARIKU GUREN

Oron artean oroigafi dan bariku baten
izpi argiak ostendu ziran eguzkian,
iluntasunan estalki baltza zabaltzen zala,
gauza gustiak geratu ziran itzalpean.

Gizadi oro geldu-geldurik ixilduten da;
abere, egazti, oyu lafi ta oñuakaz,
ixiltasuna austen dabenak bakañik dira
axe ekaitzkoñak egiten dauzan uluakaz.

Luña dañ-dañka azken zotiñak emoten
[letxe,
mendi-arkaitzak ikareagaz zatituta,
obietatik ilak bizturik urten dira,
ezautzeztoben indañ ixilak bultzatuta.

¿Ludi zabal au ilunpetzeko zer gerta-
[tzen da?
¿Noren aginduz izpiak gorde eguzkiak?

¿Árkaitz gogořak zeren indařez zatitzen
[dira?
¿Zer dala dař-dař luř zabalaren eustazpiak?

Yakin nai daunak yaso begiak Kosko-
[tegi'ra,
oldoztu ondo biotz samiņaz gerta zana,
ta galde onek urtengo dautso espanetara:
¿Zelan betiko etzan ondatu ludi dana?

Gurutza baten zinzilik dager Yainko
[-Semea
esku ta oņak untze gogořez zulaturik,
buru deun-deuna arantza latzez inguratuta,
Biotz samuřa burdin ankeřaz zauriturik.

Esku ongiņok zer egin eben ludi onetan
gurutza bati untzez yosirik ipinteko?
on ta zoruna biotz danetan zabaldu eta,
¿nor ain ankeřa gaiztakeri au egiteko?


Obendioen maitetasunez eřirik-eři,
ainbeste bideř nekatutako oin maiteak
¿Zelan zagoze gogoř bai gogoř untzez
[yosita,
eřuki barik zelan zagoze zulatuak?

Biotz maitekoř, Biotz bigun ta Biotz
[onena,
neuři bagarik gizonok maite dozuzana,
¿Eskeř gaiztoko burdin ankeřa nok egiņa
eruki barik erdibituten zaituana? [da

Gizonon zořak Yaungoikoari ordaintze-
gure obena beraganduten ebalarik, [aren
gu gaizkatzeko gurutza baten ixuri eban
Yosu maiteak odol gustia neuři barik.

Neure oben ta gaiztakeriak ipiņi zaitu,
erugeori, gurutza ortan untzatuta.
¿Zelan ba daukat neure biotza garbatu
[barik,
zelan ez daukat damutasunez zatituta?

Eskeř-gaiztoko biotz gogořok ikusirik ba,
dař-dař egiņaz, mendi-arkaitzok, erdibitu,
ia biotzok luř zotin eta ikareagaz
Yaun maiteatzaz egiten diran erukitu.





YOS U GURUTZAN

Gurutza baten yosita dager
Yaungoikoaren Semea,
gaizkile deunge baltzena letxe,
ludiko Yaun ta Yabea.

Esku ta oñak untze gogoréz,
gurutzagaz dauz baturik,
buru edera zauriz beteta,
arantzaz inguraturik.

Gotzonen poza dan arpegia,
autsez, izerdiz, odolez,
maskaldurik dau, gorputz gustia
zauriz eunduta oñazez.

Bere biotza samintzen dautse,
ifi garats eta ixekaz,
lotsagafiro laidotzen dabe
itzik irainkoyenakaz.

Burdin ankeáz zulatzen dautse,
Maitasunari bulaía,
ta, geu-obenak auts biuítzeko
urten da maitasun-gaía.


Geu obendunok besaítzeko
besoak daukoz zabalik,
ta maitasunez gogoít yosita
ez bialtzeko zigoiík.

Eguzkiak be, lotuten ditu
bere baíuan izpiak,
ez dala asaítzen argitzen, bere
Yauna'ren samin-nekeak.

Luía be daí-daí dakuszunean
ez zadiz geldu kistaía,
ilik dagona *Efugea* da,
Yainko-Seme Bakaía.

Geldu zadiz bai dagoalako
ilda gugaitik gurutzan;
¡Garbatu baíz oben egiñaz!
¡Ez geyago oben bizitzan!





¡AMA NEKATSUA!

Gurutza batean zinzilika dager
anekerki yosirik Yainko-Semea
¿Nork azaldu leike berari begira
dagoan Ama'ren atsekabea?

Yosu da Semerik maitagarriena
Miren, Ama samur maitatiena
Ama-Seme onei biotza zulatzen
dautsen espatea da zorotzena.

¿Nork neurtu ete lei Semeak biotzan
daukan maitetasun sugar-indaia?
¿Nork zenbat maite daun Miren'en bio-
bere kutuna dan Seme Bakaia? [tzak

Zabal-sakonean neufigabea da,
alkarenganako maitetasuna;
¿neufigabea ba ez ete da izango,
bion biotzeko neke-samiña?

Semeak burua eloriz yosita
esku eta oñak untze gogoréz,
Amak dakuszala, ez dau eukiko ba,
leřtuten biotza samin-indařez?

Yasoizuz begiok, ikusi, aztertu,
gogaldu nekeok geldu-geldurik;
luřbira onetan oñaze gustiak
Aman nekeokaz daben barđiñik!

Itxaso ondogabe, gazi-mingotsa da
Amaren biotza neke-oñazez;
bat batez bizia kenduko eutsona,
adoretu ezik goiko-eskařez.

Auxe da Simon'ek Ama maite ori,
iragarı eutson samin-ayotza,
ta neure obenez egiña dalarik
garbaiz-garbaiz daukat ene biotza.

Ama maite ori ¡Eřukitu zaitetz!
negařez datořtzun seme onetzaz;
Eřukian Ama zeu zarealako
Ama Nekatsuoi; ¡Eřuki nitzaz!





IKUSI TA IKASI


Kistaŕ zintzoa, ba'dozu ikusi
udabaŕiko goxetan,
margo edeŕdun lora usaintsua
biribil aran-ertzetan,
eguzkiaren izpi samuŕak
ikusiaz beste barik,
bere oŕitxo legun-bigunak
ipinten zabal-zabalik?

Eta aŕatsean ez dozu ikusi
loratxo guri samuŕa,
biribilduaz, eguzkiari
bialtzen eskeŕ-aguŕa
beroak iges egin eztayon
oŕi guriak estutzen,
ta goitik yausten dan iñontz otza
bilduŕge bere gain aŕtzen?

Bardin eikezu kistař maitea
zeure gogoan erdian,
Goiko Yauna'ren eskař-argia
agertzen dakuszunean.
Zabal gogoa, zabal biotza,
argi bero au ařtzeko;
yagon bařuan otz-aldietan
Yaun-maitasuna zaintzeko.

Ta atsekabezko gau baltz, itunan
biotz beroa ba'dozu,
eta iřontziar gogořenak be,
ez otzitzea nai'bozu;
goiz gustietan Yaun maitearen
eskař-beroa zeugandu,
Yaunařtze bidez Yosu-Gorputza
biotz bařuan laztandu.





O R I Ā

Alai pozkañi oron artean
Oñila yaku agertzen;
atsegin-pozez geure biotzak
dituzalako asetzen.
¿Zelan ez gaitu pozez beteko
Ama'ren ñla dalarik?
Izadi dana ez da agertuko
alaitasunez beterik?

Argidiria soñtzen danean
ñribañezko mosuaz,
«Miren'i aguf» ez dau esaten
abots samuf ta gozoaz?
Eguzki eder disdiratsuak
mendigain dala agertzen:
«Miren'en ñlan argi eiteko
poz-pozik naz ni azaltzen?»

Beren izpiaz laztantzen dauzan
lora eder usaintsuak,
ezpan samurak zabaltzen ditu
bialduteko agurak.
Usain gozoa zabaltzen dabe,
«Agur Miren»i esanaz,
ta bere aintzak abesten dabez
igañtu arte yoranaz.

Ez dakusuez bariz zugatzak
osto ederez yantzirik,
mendi ta ibarak orlegituta
bedar usaintzuz beterik
axe bigunak samur-samurki
safi laztantzen dauzala?
«Agur Miren»i, abesten dabe
«Berak onetsi gaizala.»

Txoritxoak be, abestiakaz,
poza dabela zabaltzen,
ez dantzuzuez birloratuta,
Miren'en il au agurtzen?
Txorotxioka ez diñoskue
Ofila ospatuteko;
Ama Miren'i kistar gustiak
opaltzen dautsoelako?

Poztu ba zu be, kistař maitea
izadi danaz batera,
ludi gustiko izakiakaz
aurkeztu Ama'n auřera,
euren antzera eskiñiyozu
biotz semekoř biguna,
bere bitařtez lořtu dagizun
beti-betiko zoruna.





GOGO - ARGIDIRIA



Udabañiko argidiria
bai'dala ziñez zoragaía!

Eguzkiaren urrezko izpiak
mendi galenen ertzetatik
yatsirik, ibaí lili gustiak
esnatzen dituz lo zoóotik.

Udabañiko argidiria
bai'dala ziñez zoragaía!

Goitik yatsi dan iñontz gardena
lora-gain dagola atsedentzen
argi-beroak laztantzen dau ta
beragaz goirantz eroaten.

Udabañiko argidiria
bai'dala ziñez zoragaía!

Odei-ertzean argitasuna
sořtzen daneko txoritxoak,
txuinta gozo eta bigunaz
alaitzen dabez inguruak.
Eta axe bigunak abes samurak
bere altzoan laztandurik
pozaren-pozaz edatzen dituz
urira oyan, ibaretik.

Ziñez bai ziñez zoragaría
udabařiko argidiria!

Baña nik dazaut edeřagoa
argidiri bat bikañagoa.
Gogo bizitza galdu dabena
esnatzen dauna lo-zořotik,
oben gabea bizi izan dana
bilduręari dan ilunpetik.

Beronek garbai dan biotzetik
sořtzen dau negar-malko iñontza
izpi bigunez lurundu, eta
oben ordaña dan eskintza;
Yaun erukitsu ta biozperan
aurera pozez aurkezturik,
goiko eskařez geure biotzak
ipinten dituz zorundurik.

Ēta pozaŕen birloratuta
eskeŕ-maitasun abes leunaz,
mendi ta ibaŕak poztutzen ditu
Miren Ama'ri abestuaz:
«¡Bigun, samuŕa, zoragaŕia,
Zu zara gogo-argidiria!»





NIRE ZORUNA

Maitasunezko laba gorria
Biotz eder ta maite-maitea,
Zu nire poz ta
zorun - zoruna,
Yosu'ren Biotz biguna.

Biotzarentzat maitetasuna
ituñientzat ur garden leuna
legez izanik, .
Maitasun barik
euki ete lei bizirik?

Ene biotzak zer maiteko dau?
ludi gustiak asetzezpadau?
¿Zelan maite lei
soñtzen eztaunik
biotz bañuan zorunik?

Neure gogoia egi egariz,
bizi gustian argi gurariz,
ba'daukat beti
samin-samiñez;
¿Nok beteko dau zorunez?

Iluntasunez bidekatu
zorun bidea ezin bilaurik
ba'nabil beti
ilun artean;
¿Nok yarıko nau bidean?

Etsai gogoiez inguratuta
burukan beti nekau-nekauta
argaltzen ba'yat
neure biotza;
¿Non aurkitukot bizitza?

Yosu'ren Biotz maitagaría
maitasunezko laba goría,
Biotz samur ta
bigun-biguna,
niretzako da zoruna.

Ilunpean ba, bidekatuta
etsai galgariz inguratuta
nabilenean,
Bere Biotza,
niretzako da laguntza.

«Eguzkia naz, Argi beroa,
zu berotzeko ludiratua»
—diñosta Yosuk—
NI NAZ BIDEA
NI BIZITZA TA EGIA.





ARANTZATSU'KO LILIA

Lora gustien edertasunak
igesten dabe bertatik,
eguzki aitzin izafak legez;
lili ederen ondotik.
Lilia da ba, loren artean
eder, garbi, txukunena,
bere yantzi ta usain ondoan
¿zer da lorarik onena?

Goirantz begira lerdan dagola,
espanak zabal-zabalik;
ikusten daben oroi diñotse
emen eztala zorunik,
Zerua dala zoruntegia
ta bertarako bidea,
gure biotza zuri ta garbi
bera dan legez zaintzea.

Lili eder bat agertu zan bein
Eusko-errien erdian,
anayak alkar galdu gurarik
gogor ebiltzen aldian,
arantzar-tean lilia legez
zuri, eder ta garbia,
Aloña mendin agertzen zala
Ama samur Orbangea.

¿Arantzan Zu be? diño artzañak
—Arantzan ene semea.
—¿Zer dala baña zagoz arantzan
Yauna'ren Ama maitea?
—Ene semetxo ez dakizu ba,
Ama zeuentzat izanik
neure biotzak ezin leikela
autu yarleku obarik?

Atsekabezko arantzar-tean
semetxoak ikusita,
Ama'k biotza zelan euki lei
arantzatik aldenduta?

.....
.....
.....
.....

Árezkerotik lili edeí au
Aloña mendi gañean
bere kutunak zaintzeko dago
Eusko-eríen erdian;
Ama'ren biotz maitekofagaz
esaten abots samuraz:
*Arantzartean ez aztu Nigaz
ez aztu goiko zorunaz.*





AMA SÓRTZEZ GARBIARI

Zu zara Miren aranteko
lili edeñ ta garbia,
gustiz edeña, eduñ antzera,
zuri daukazun yantzia.
Eguzkiak lez dis-dis dagitzu
arpegi zoragañiak;
zure kutunoi biotzetara
bialtzen zorun-izpiak.

Yerosolym'go aintza zara Zu,
Ixañel'dañen zoruna,
kistañ-eña zeure izenagaz
gora-goraltzen dozuna.
Onetsia Zu Yauna'k autuoi
emakumeen artean,
Zure antzedun bat ez daurki ba,
ludi zabal dan gustian.

Zu zara Soítzez Garbi-garbia,
gure Ama'txo laztana,
ta jaíren! laguntza eske gatoz gaur
apal-apalik Zugana:
Len-gurasoen oben galgaríz
ilun doguz adimenak,
Argia'n Ama zaran ezker
uratu oben ilunak.

Geu-naimena be, lera on barik
argal-indaíge dogula,
ekandunari yaíaituteko
daukagu auldu-aulduta;
Zeuk indaítzeke, ¿zer ete geinke
egin Ama'txo laztana,
izanik bakaí Yaun altsuaren
Neskutz Ama deun zarana?

Sala danari gaiñ egiteko
eztogu geugan indaírik,
girñak pozkiña maitatzeko be,
ezta beaí dan neuírik;
¿Nok ba zuzendu girña zitalak
ta indaítu biotz argala,
Zeuk izan ezik guretzat beti
argi dagizun izaía?

Geure itxaroa zaran ezker
lagun zakiguz Yauna'ren,
Zure onoimen luñun ondoren
yafaitu daigun pozañen;
Oben galgañiz kutsutuok ba
ustatsu gatoz Zugana,
¡Añen! gustiok donokiratu
gaizuzan Ama laztana.





AIZKIDETASUNA



Lora eder ta samur-samurá
mardulik sortzen yakuna,
geu-biotz-baru baratzan legez
lili usaintsu biguna;
aizkidetasun maitetasuna
orok daukagu baruan;
Lora eder au zaintzen eztaunak
¿bauko zorunik gogoan?

Yanari barik ezin leike iraun
ezelan bere bizitzak,
Maitasun barik zelan iraun lei
luzaro gure biotzak?
¿Non aurkitu lei bere yakia
izanik auxe bakaía?
Yaki au eztaun biotzari ba
¿zek biztu bizitza-gaía?

Lili usaintsu ta samur onek
alkartzen dituz biotzak,
berau ezpalitz danak litzakez
bakař, itun eta ilotzak.
Onek damotso biziteari
atsegin-gozotasuna;
¿Aizkide barik euki geinke ba
beař dan poz ta zoruna?

¿Aizkide barik, nori agertu
biotz-bařengo samiřnak?
¿Nori edestu gogo-bařengo
yazokun alai pozkilak?
Yasařpenagaz gařastasuna
ba'datoř geure ondoren;
¿noren biotzan deituko dogu
laguntasuna eskatzen?

Bařiz aizkide ona danari
emon dautsonak biotza,
egun alai naiz ilunetan be,
euko dau poz ta laguntza.
Berau dalako emaitz edea
Yainkoak emon dauskuna
gozatzen dausku gustiz oparo
bizitza-gařastasuna.


Aizkide ona daunak aurkitzen
Yakituriak diñonez:
«Ondasunketa aurkituten dau»
beteko dauna zorunez.
Uferik ez da, ez ondasunik
aizkide ona lakorik,
berau bagarik eztagolako
beko zorion biderik.

Gauza bigun ta samura danez
ardura ondo zaintzeko,
girñak ba beti listoña letxe
gertu daoñ lorau galtzeko,
ta izpi gaizkile zoñotz-zoñotzaz
daben lez lorea galtzen,
lorau etsayak eñez galtzen dau
ezpa-da arduraz zaintzen.

Zaindu ba beti maitetasunaz
donoki lili edeñ au,
arantza-esi gustiz zoñotzaz
etsai kaltetik ingurau.
Auxe zintzoro egiten bo'gu
ludian garan artean,
zuzen bai zuzen ibilko gara
zoriontasun bidean.



¡AINTZA YAUNA'RI



Guren Altsua Bakañ zara Zu ene Yain-
[koa,
ludiak Zure anditasuna dau goraltzen,
zeruak dira Zure Aintzaren Bakaulkia ta
oron Bakaldun ta Yauna legez zara ager-
[tzen.


Gauza gustiak ezerezetik atera eta
«Izan zaiteze» itz-indařagaz dozuz egin,
gaudian oro banandu dira pozez beterik,
Zeu beti-beti aintzalduteko agintzakin.

Oztots durunda Zeu aintzaltzeko za-
[baltzen dala
Zeure Zuzentza bilduřgařiro agertzen dau,
ta eguzkian ene biotzak Zeu-maitasuna,
samuřtasuna baita loretan ikusten dau.

Axe ekaixkoñan erdi - erdian zabilta
tximist zolia daroyazula eskuetan, [nean,
baita zakustaz almen neurgea zabaltzen
[aintzaz
itxaso zabal, mendi, muru eta ibaíetan.

Zeure Aintzari iragitako yauretxean lez,
izaki orok goraltzen zaula pozez dakust;
Neuk be eurakaz, « Aintza Zuretzat »
[abestu nai dot,
Bizi gustian Yauna goraldtu gura zaitut.





¿.....?

Txoritxo politak
ugari dakustaz
kayola bañuan
espetxetuta.
¿Gaiztakerien bat
egin ete dabe?
zuzendasunañen
dagoz lotuta?

Ez; baña otzanak
izan diralako,
gizonen eskura
etofi dira,
ta, gizon ankeñak,
on izateañen
beste barik sañtu
dauz espetxera.


Añano gaiztoak
lapur eraileak
egazka goyetan
bafiz dakustaz;
gaiztakeri baltzez
bizitza eunduta,
¿Zer dala-ta azkerik
oro dabilzaz?

Erpe zorotzak dauz
burua zaintzeko,
eztautso gizonak
esku-ezartzen,
gaiztoak ba'daki
ba, safi askotan
gizonen eskua
erpez uratzen.

Augaitik otzana
safi dakuskezu
gizonen artean
zigorpetuta,
eta gaizkin baltza
erpak agirian
gizon zuzena lez
aintzat artuta.

«Txoritxo gaxoa
estuntzapean ta,
afano gaiztoa
azke axetan,
begiak zabalik
daukozanak safi
ikusiko dituz
ludi onetan.»





ANDONITXO TA MITXELETEA

Andonitxo mutiko
otzan eta argia,
esanak egiteko
men eta zolia,
bein loratxoak zaintzen
ebilen amari
ura ekañten eutson
eiteko lorari.

Eskuan urontziaz
begira egoan
ta, loratik urtenda
euren inguruan,
mitxeleta bat dakus
zuri ta edefa,
egazka ebilela
batetik bestera.

Mitxeleta polita
zana ben-benetan
Andoni'k artu nairik
beren eskuetan,
asi zan bere yañai
beso edatuaz,
ikutzea loñturik
nozipein eskuaz.

Baña mitxeteak
egaz zoli-zoli
ixeka eiten eutson
gure Andoni'ri,
ta batera-bestera
luzaro ibilita
Andoni gelditu zan
gustiz nekatuta.

Mitxeletea baita
atsedendu nayaz,
nekatua zalako
ainbat egazkadaz,
elori adar baten
pozik eskutau zan;
begiak baña Andoni'k
bere zain eukazan.

Ixil beatz gañean
ondotxora yoan
ta, ¡sart! mitxeletea
eskuratu eban,
baña elori arantz
zoñotzak zulatu
eutson eskua, baita
odolez estaldu.

Alan be, Andoni'txo
gurendari zala,
pozez amagandu zan
eskuan ebala;
eskua zabaltzen dau
ta... ¡a bai zan tamala!
ikusi ebanean
auts biurtu zala.

Orduan amak esan
eutson Andoni'ri:
«Ludiko poz-zorunen
irudi dok ori;
Zorun yañai doyana,
gustia nekatu;
eskuratzen dauneko
bertan ezereztu.»



OYANEKO ITURIA

Odoldiari mosu emonaz
agertuten dan iturítxoak
oyanean;
bere txokotik urten daneko
txori-aguñak pozañen dantzuz
ostopean.


Axe bigunak esku legunaz
arpegitxoan iguzten dautso
aizkide lez;
ta ur garden, garbi yayopafiak
bere eskeñ ona dautso agertzen
íribañez.

Zear-meañka bildur-ikaraz
ibili dabil ezautzeztaben
bidetxoan;
eta zertxobait nekau bai'litzan
geldituten da bidean dauñkin
txokotxoan.

Baña arpegia txoko ertzera
agertu dau ta bean ibai bat
ikusirik,
zer ete dagon yakinguriaz
amildegitik doa ikotika
geldi barik.

Zerbait izukoʻ uferatu da
ibaira baña, gaxoa alako
uste barik,
ta, ara ur loyak bañuan dauzan
ibai zikiñaz non gelditzen dan
bat egiñik.

«Irudi ontan zenbat ta zenbat
euskotaʻ gaste geinkez ikusi
antzeztuta;
¡Au bai tamala..! Oyanetako
ur garden leuna, loi dan uragaz
alkaʻtuta..!»





NEURE GELAKO TXORITXOARI

Txori polit bat
kayola baru
daukat gelaren
erdian,
txofo-txioka
ixildu barik
abesten egun
gustian.

Abes itunik
ez dantzut inoz
beti alaiki
diardu,
auxe dala-ta
safi-safi dot
neure artean
gogaldu:

«Txoritxu ořek
espetxetxoan
azkatasuna
galduta,
¿Zelan poz-pozik
abestuten yok
espetxeagaz
aztuta?»


«Izatez beti
azke ibilteko
Yauna'k egiña
dalarik,
egazkada bat
ezin eginda
¿zelan abestu
alairik?»

Onetan baña
neure bafuan
erantzun auxe
dantzut nik:
«Kayolan dagon
txori-abesak
auko gaxuoi
geldurik?»

«¿Ez ete dok ba,
ikusten non nai
ekandu txaréz
lotuta,
alai abesten
gizon gaxoa
bere zorunaz
aztuta?»

«Goirantz egazka
beti ibilteko
Yauna'k egiña
dan a'én,
¿ez dok ikusten
guzur-loka'ri
ta obenpean
poza'én?»

Itzok entzunik
txoritxu o'én
abesak ez nau
a'itzen,
adimenduna
dakustalako,
berberorixe
egiten.



UMETXOAI BEGIRA

Mitxeleta legez
atsedendu barik,
yolaska zabiltzan
ume otzanoi;
arpegi alayaz,
ule kiskuñtuaz,
zorun-seme antza
dozun gotzanoi.

Zeure begi oñeik
eñugetasunan
antzikuñ edeñ bi
dirala ¡ziñez!
begirakun gozo,
argi, zoragañiz,
betetzen daustazu
biotza pozez.

Zu añan zoruntsu
ez da iñor ludian,
oben ta samiñik
ez dauzauzu ba, *ez dozu ezagutzen*
gentzatsu dan osiñ
Yauna'n antzikuía,
gotzon-poza zeure
biotza da-ta.

Ludi gaiztakeri
artean bizi ta
zeure biotz ori
garbi-garbi da.
Noiz-arte orrange
iraungo ete dau?
Erantzun leikenik
iñor ete da?

Mitxeleta legez
yolaska ikusirik
neu-biotzak artzen
daben zoruna..!
Baña oben kutsuz
loitzeko zorian
ikustez dodan
samin ituna..!



PARIXETARA

ta ZERGALARIA

Gizon eretxi eta biotz aroa
otoi egitera elexara doa;
Yauna'ren aurean
elexa erdian,
begira zutunik
Yaunari otoitzat zuzentzen itz oneik:
«Ene Yaungoikoa, eskerik asko
besteak lakoa ez nazalako,
ez naz ba, beste lez bidegabea,
ez lapuá eta eskontzauslea;
astean biritan barau egiten dot,
oron amaéna zintzoro ordaintzen dot,
ez naz ba, beste lez obendaria,
dan lez or' dagoan zergalaria.»

Otoi au egiñik
gizon aroa,
elexatik alde
egiten doa,
beretzat diñola
pozez beterik:
«Ni bezin on danik
etxaok besterik.»

Bazter baten dager biotz apalduna
obenez iraundu dabelako Yauna,
begiak yasoten
eztala asartuten,
bulara yoten dau
gustiz garbaturik otoi egiten dau:
«Obenduna naz ni, Yaunoi, bai'dakit
baña, biotz miñaz eruki daurkit.»

Otoi au egiñik
gizon apala
biotza garbayaz
samin dabela,
alde ta oldozten
diño lotsaurik:
«Ludian ni bezin
ezta gaiztorik.»

Apalan otoa lu'ún gozo lez
Yauna'k donokian
entzun dau pozez;
poz-pozik apala geratuten dala
a'oa itun da
Yauna'ren aotik itz oneik entzunda:
«Entzun dot apalan eskari sutsua:
beratzaz baka'rik naz e'rukitsua;
eska', e'ukia
eta donokia,
eztira a'roentzat,
iguinga'ri da ba, a'oa Niretzat.»





ASIS'TAR' PANTZEZKA

DEUNAREN ERIOTZEA



Eguzki sutsuak udazken arátsez
dauzala bialtzen azken-izpiak,
Porziunkula'ko txabola batean
argitzen dauz gauza oroigafiak.

Txirotasun deunan irudi bizia,
bilosturik datza lu' gogo'ean,
«Asis'ko Txiroa,» iltze' zotiñetan
eriotzearen erpe artean.

Yaun-maitasun-ga'erez olda'ka biotza,
le'rtu bea'ean taupadaz dago;
ta berak poza'fen abesten diardu,
eriotzea ur' eta ga'rtsuago:

«Neure abotsez dei-dagitsot Yauna'ri
Neu-abotsez Yauna'ri eska dautsot,
Neure otoya bere aitzin ixurita
Bere auéan neu-samiña agertzen dot.
Neure gogoa naigabetzen danean,
Neure bidaskak Zuk dozuz ezautzen,
Bide onetan neu nabilen bidean,
Lakio ixil bat edatu eustien.
Eskumaldera begiratuta dakust,
Iñortxo ez dala ezautzen nabunik;
Iges-bidea niretzat galdu da-ta,
Ez da bizia zaindu nai daustanik.
Didaf dagitzut nik, Yaunoi, diñodala;
Zu zara nire zain eta itxaroa,
Ta biztoki ontan nire yabegoa.
Neure oyua aren entzun egizu,
Oso-osoan apaldua izanaz ta,
Neu yasañleetatik gaizkatu nagizu
Nire aldean indaitsu dira ba.
Bere espetxetik atera neu-gogoa,
Aintzaldu dagidan Zeure izena,
Zuzenzaleak ba, begira daukadaz
Emon daidazun Zeuk epai zuzena.» (1)

(1) Dabid iragarleak etsayakandik iges lexa baten egin eban otoya. (Psl. CXIII.) Iberkerako aldakuntzak gogoan euki dira.

Pantzezka ixildu da; ta euzki ondoren
iluna zabaltzen dan bitartean,
eriotzearen eskutik iges dau
argi egiteko betiraundean.

Txirotasun deunan irudi bizia
il da, ta gotzonak dabe goraltzen,
ta bere gorpua datzan ingurura
txoritxo piloa datoř agurtzen.





DEUNORO EGUNA



Ufrez eta argiz Ama yantzi da,
yualak alai deitzen dagoz,
«Poztu biotzez, ene semeok,
poztu bañendik, poztu gogoz.»

Oroitzen zara zeure anaya
ludiko txiro ta otzanaz,
negaf ta gosez, zuzen-egafiz
eta efukitsu izan zana?z?
Ene semeoi, oroitzen zara,
biotz garbidun anayatzaz,
gentzatsu eta ona zalako
yasañpenpean bizi zana?z?

Begira orain Yauna'n ondoan
donoki-lufrez yabeturik,
zorun-zorunez ase-aseta
negaf-malkoak leofurik.

Begira orain Goi-Erúkiak
Bere seme lez maitetuak
dirala, pozez donoki-goyan
beti-betiko zorunduak.

Eleiz Ama'gaz poztu, kista'oi,
yualak alai deitzen dagoz:
«Poztu biotzez anai-zorunaz,
poztu ba'endik, poztu gogoz.»






GOKAXOEN EGUNA

Soñeko baltzez Ama yantzi da
yualak itun deitzen dagoz:
«Biotzez negaí, ene semeok,
otoi baíendik, otoi gogoz.»

Bere lepoan gurutz aztunaz,
bizitz ontatik igarota,
ikusten dozu anai gaxoa,
izerdi-autsez zikinduta?
Donokiratu baño lenago
garbitzen dago su-gafetan,
¡Nitzaz eruki! didaíez diño
ez aztu nitzaz otoyetan.»

Eleiz Ama'gaz otoi, kistaía,
yualak itun deitzen dagoz,
«Gutzaz eruki, anai maitea,
negaí biotzez, otoi gogoz.»



SORTZEZ GARBIA

Ama maitea
Sortzez Garbia,
gure Artizar
bardingabea,
gutzat itxaro
gozotasuna,
biotz-samiñen
zorun-zoruna,
ez yakiñontzat
yakitura,
obendiontzat
goi-erukia,
Zu etsai kaltez
poz eta indaía,
gizadiaren
Ama bakaía,
Zure deuntasun
guren-gurena

Yaun Altsua'ren
eskutapena
da ta, Yafleku,
zoriontsua,
goi-gotzonaren
gañetiko,
ezin neike ba
iñoz uleřtu;
neurģea danik
ezin lei neurřtu.
Dautořt biotzez
apal-apalik:
«Zure gañetik
Yauna bakařik»
ta seme usteaz
pozez diñotzut:
«¡Amatxo laztan,
nik maite zaitut!»





URTE ZARAREN AGURA

Buru sola ta
bekoki tximur
bizkaña konkor
zamauta,
Aguratxo bat
iltzer datza gauñ
arnasaz ezin
beteta.

Bakañ-izketan
diardu berak,
biotza daula
samiñez:
«Ludi zitala;
aguñ betiko..!
aguñ dagiskat,
iguñez..!

«Erfuge izanik
zer dala-ta ni
zamau ete nok
obenez?
Zer egin dauskat
neure biotz au
erdibitzeko,
naigabez?

«Eugaz geyago
nik etxoat nai
artu-emonik...
jezer bez..!
Nayago yoat
il bein betiko
ta il bein-betiko
iguñez!

«Baña il baño len
entzun egidak,
beste bein eta
azkenez:
«Ludira Yauna'k
bialdua nok
eu asetzeko
zorunez..!»



¡ A G U R !

Donoki-lu'én Yaun ta Yabeak
beren Ama'tzat autua,
Zu zara Miren izaki edef,
oron artean altsua;
Zeure buruan amabi iza'ez
apaindurik burestuna,
dakustalako; ¡Aintza Zuretzat!
¡Agu' ludi Bakalduna!

Ama maitati onenak ba'ño
samu'ragoa biotza,
agertzen dozu gizon gaxuoi
emonik zeure laguntza;
ta Zeuk semetzat ar'tu nozu ta
nazalako zoruntsua;
biotz-biotzez eska' dagitzut
¡Agu' Ama Eska'rtsua!

Oben edenak ene gogoá,
eskař bizitza kendurik,
donoki bidez goirantz doýala
itxi daunean ilotzik;
Zeuk Goi-eskeřez bařiro biztu
daustazulako biotza;
bařen-bařendik ¡Eskariř asko!
¡Aguř gogoko bizitza!

Atsekabe ta mingostasunak
biotza miñ-gařaztuta,
ene gogo au ipiři ba'dau
bizitzagaz aspeřtuta;
Zeu izan zara beti nireztat
poz eta zorun osoa;
augaitik pozez agurřzen zaitut;
¡Aguř Amatxo gozoa!

Goiko zoruna yaritxiteko
eragozpen ugariak,
neuri etsayak ipiřnikustaz
galerazteko bideak;
orduan, Ama, orain arte lez
emon indař eta almena,
Zeuri biotzez didař eiteko:
¡Aguř ene Itxaropena!

ITZ ATZALGARĪ BATZUK

- Argidiri = egunsenti.
Antzikur = ispiġu.
Aintza = gloria.
Aintzin = contra.
Amildegi = vertiente.
Azufutz = esqueleto.
Axe-erauntsi = huracán.
Atzipetu = engañar.
Abelapal = abere apal.
Ankeña = cruel.
Ekandun = virtud.
Eden = veneno.
Ekaitz-mařaska = bramido de la tempestad.
Edatu = luzatu.
Espetxe = cárcel.
Eztager = ezta agiri.
Eztakus = eztau ikusten.
Irakasti kistaña = Doctrina cristiana.
Itun = triste.
Iltzeř = agoliña.
Iñontziar = escarcha.

Igeskof = fugaz.
Yoran = ansiedad.
Yasan = sufridu.
Yabegoa = porción heredada.
Yasarpen = persecución.
Yoala = kanpaya.
Yauretxe = templo.
Yasafle = perseguidor.
Osantz = trueno.
Ortze = firmamento.
Obendi = pekatari.
Onoimen = virtud.
Oyan = selva.
Otzan = manso.
Bakaldun = efege.
Bakaulki = trono.
Berun = plomo.
Gaudi = universo.
Gotzon = aingeru.
Geldu = admirarse.
Gentzatsu = tranquilo.
Ludi = mundo.
Landerf = miserable.
Lera = inclinación.
Leusindu = palagar.
Legof = marchito.

Laidotu = afrentar.
So-egin = dar una mirada.
Makatz. — guadaña.
Margo = color.
Naimen = voluntad.
Nekaldi = pasión.
Txastatu = probar, gustar.
Txiro = pobre.
Zomofo = insecto.
Zama = carga.
Daurkigu — aurkitzen dogu.
Dazauzuna = ezautzen dozuna.



Oafa.—Idazti onetarako autu dodan idazkeran, uts batzuk oaf-tu dodaz; batez be, *z'*ren ordez *x* safitxotan agertu da. Beste batzuk be ba dira, baña irakufleak zuzenduko ditu. Irañ - utsik nau-siena, 23'gn. ingoskian oaf-tu dot *ondogabe ondogabe* 'ren eta *itxaso itxaso*'ren ordez.